Emaiozu bizia

euskara euskara euskara
euskara euskara euskara



Porque lo tienes claro

Berba egitea, arnasa hartzea bezalakoa

Haur guztiek beren inguruan hitz egiten den hizkuntza bat ikasten dute. Gizakiok genetikoki hizkuntzaz jabetzeko prestaturik gaude. Mintzaira ikasteko gaitasuna berezkoa du umeak, baina horretarako jendea behar du ondoan nahitaez.

Hablar, como respirar

Todos los niños y niñas aprenden la lengua (o lenguas) que se habla(n) en su entorno. Los humanos estamos preparados genéticamente para la adquisición del lenguaje. La capacidad de aprender la lengua es innata en el bebé, pero para ello necesi a gente que la hable a su alrededor.

Sortu baino lehen, amaren sabelean hasten da umea hizkuntzaz jabetzen eta ama ere hasten zaio barruan daraman umeari mintzaira ematen, oharkabean bada ere. Sabelean dagoenean umea hizkuntzaren doinuekin ohitzen hasiko da eta jaiotzen denetik mintzaira bereganatzeari ekingo dio. Hasieran hitzak pixkanaka ikasiko ditu, astean hitz berri bat edo. Baina haurraren hiztegia kopuru kritiko batera (berrogeita hamar bat hitz inguru) iritsita, **hemezortzi bat hilabete dituenean, prozesua arindu eta haurra *hitz harrapatzaile* bihurtuko da**. Egunero hitz bat edo bi bereganatuko ditu. Bi eta sei urte dituen bitartean haurrak hamar bat hitz berri ikasiko ditu eguneko. **Sei urterekin, Lehen Hezkuntza hastean, haurrak 10.000 hitz inguruko hiztegia izango du eta oinarrizko elkarrizketetan aritzeko gauza izango da.** Umeak bizitzaren lehen momentutik inguruan duen ezinbesteko zerbait da hizkuntza. Komunikatzeko, ondokoekin hartu-emanak izateko, bere burua antolatzeko, bere nortasuna eratzeko, mundua ezagutzeko, jolasteko, ikasteko… gizartean bizitzeko eta, bizi ez ezik, ongi bizitzeko ere beharko du hizkuntza haurrak.

Hizkuntzaz jabetuko da bere nahiak adierazteko eta beharrak asetzeko balio diolako.
Umea hiztuna da hasieratik, berba egitea arnasa hartzea bezalakoa baita.

6 urte = 10.000 hitz

Ya antes de nacer, en el vientre de la madre, la criatura comienza a aprender el lenguaje y también la madre empieza, aun sin ser consciente, a transmitirle la lengua. Estando en el seno materno la criatura empieza a familiarizarse con los sonidos de la lengua y desde el momento en que nace comienza a apropiarse del idioma. Al principio aprenderá las palabras muy lentamente. Nos percataremos de que incorpora una palabra nueva a la semana. Pero cuando el vocabulario llegue a un volumen de unos cincuenta términos, lo que suele ocurrir **l·LJ№2È∧Y I·ŘI·Y Ŝy∏Ŝ l· f2ǎ Řieciocho meses, el proceso se acelerará y el bebé se convertirá en un auténtico *cazador de palabras.* Aprenderá uno o dos vocablos nuevos al día.** Entre los dos y seis años el niño o niña adquirirá unas diez palabras nuevas diariamente. **Cuando a los seis años empiece la educación primaria tendrá un léxico de unos 10.000 términos y será capaz de participar en conversaciones básicas.**

La lengua es algo imprescindible desde el primer momento de su vida. La lengua le servirá para comunicarse, para relacionarse con los demás, para organizar sus percepciones, para formar su personalidad, para conocer el mundo, para jugar, para aprender, para vivir en sociedad... y no sólo para vivir, sino también para vivir mejor.

Los niños y niñas adquirirán la lengua porque ésta les sirve para expresar sus deseos y satisfacer sus necesidades.
Son hablantes desde el primer momento porque hablar es como respirar.

Zuen umea, euskaldun eleaniztuna

Oraingo haurrek hizkuntza bat baino gehiago ikasten dute, familian nahiz eskolan. Etxean euskara ikasteko aukera duten umeek gaztelania eta beste hizkuntza batzuk ere ikasiko dituzte gero.

Familian euskaraz aritzea hizkuntza hori sendotzeko biderik onena da.

Txikitatik elebiduna izateak nagusitzean beste hizkuntza batzuk ikasteko erraztasunari lagunduko dio. Zuen seme-alabak ere hizkuntza bat baino gehiago jakingo ditu. Hizkuntzak jakiteak abantaila itzelak emango dizkio. Euskarak ere onurak ekarriko dizkio hemen hazi eta sozializatzeko, beste haurrekin harremanak izateko, euskal kultura ezagutu eta gozatzeko. Izan ere, bertan bizi, bertako egin eta bertakoa sentitzeko bidea dugu euskara.

Vuestro hijo o hija sabrá más de una lengua

Nuestros hijos e hijas ahora aprenden más de una lengua en casa y en la escuela. El euskera puede ser una de sus primeras lenguas y ser la base para la adquisición de otros idiomas. **El contacto temprano con diferentes lenguas propicia ventajas para futuros aprendizajes y en nuestro caso, el bilinguismo temprano facilitará la adquisición de un tercer o cuarto idioma más adelante.**

En el mundo actual saber más de una lengua conlleva muchas ventajas. Conocer idiomas da más oportunidades y el conocimiento del euskera también les proporcionará muchos beneficios en la socialización e integración, en las relaciones con otros niños y niñas así como en el conocimiento y disfrute de la cultura vasca. Al fin y al cabo, el euskera les facilitará el camino para vivir aquí, para hacerse y sentirse de aquí.

Euskara, familian, gurasoen esku

Umeak txikitatik zein hizkuntza izango duen hurbil gurasoen esku dago. Oraintxe has zaitezkete erabakiak hartzen euskarak zuen etxean eta seme-alaben bizitzan lekua izan dezan.
Txikitatik euskararekin harremana izatea nahi baduzue orain da momentua hori aurreikusteko. Azken finean, haurrak inguruan entzuten duen eta ingurukoek egiten dioten hizkuntza edo hizkuntzak ikasiko ditu normaltasun osoz.

Planificar la convivencia lingüística familiar

Está en vuestras manos, al principio al menos, el elegir qué lengua(s) hablará vuestro hijo o hija, con qué idiomas tendrá una relación temprana y estrecha. Desde este momento podéis empezar a tomar decisiones.
Si queréis que tenga desde pequeño contacto con el euskera, ahora es el momento para preverlo. De hecho, aprenderá con toda normalidad la lengua o lenguas que oye y en la(s) que le hablan las personas de su entorno.

Seme-alabak txikitatik euskaraz hitz egin dezan nahi baduzue, euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoa eman beharko diozue. **Familiaren bizitzan euskarak tokia izatea planifika dezakezuen kontua da.**

Euskaraz dakiten aita eta amek euskaraz egin ahal diote umeari txikitatik Ŝűl· hizkuntza garatzen lagundu eta sustatu. Horrek euskara ziurtatuko dio haurrari eta ikaste horren gainean beste hizkuntzak bereganatuko ditu.

Jakina da bizi garen ingurunean gure haurrek gaztelania ikasteko eta erabiltzeko ez dutela arazorik izango, etxean euskara soilik irakatsita ere.
Etxea lehen hizkuntzak ikasteko tokirik ohikoena izaten da, baina ez bakarra. Euskaraz ez dakiten gurasoek ere haurrak txikitatik euskara ikas dezan antola dezakete, haurrari hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko eta erabiltzeko aukerak emanez eta motibatuz. Izan ere, umeari hizkuntzari lotutako jarrera eta balio onak transmititzea hizkuntza bera irakastea bezain garrantzitsua da.

Si queréis que vuestra hija o hijo hable euskera desde pequeño tendréis que darle la oportunidad de escucharlo y hablarlo. **Podéis LJfl·yňřÅl·ňJ ljdzŜ Ŝf euskera tenga algún lugar en la vida de la familia.**
El hogar suele ser el lugar habitual para aprender las primeras lenguas, pero no el único.

Los padres y madres que no saben euskera pueden planificar que sus hijos Ŝ Kłł·ă sí lo ăŜLJl·y ŘŜăŘŜ pequeños dándoles oportunidades LJl·ňJl· ljdzŜ f2 aprendan y utilicen, así como motivándolŜs.

Aunque no sepan la lengua, estas familias puede ser transmisoras de valores y actitudes positivos hacia el idioma.
Las familias euskaldunes tienen la oportunidad de transmitir a sus hijos e hijas el euskera como primera lengua y en el entorno en que vivimos los niños y niñas no tendrán ningún problema para aprender castellano aunque en casa solo se les enseñe el euskera.

Hizkuntza handiak, hizkuntza txikiak, guztiak beharrezkoak

Munduan 6.000 bat hizkuntza hitz egiten dira. Munduko populazio osoa, 7.000 milioi pertsona, zati munduan hitz egiten den hizkuntza kopurua egingo bagenu, hizkuntza bakoitzari batez beste milioi bat inguru hiztun legokioke.

euskara euskara euskara

Baina bistan da munduko hizkuntza guztiek ez dutela hiztun kopuru hori. Dozena bat hizkuntzak ehun milioi baino gehiago hiztun dituzte, hizkuntza handi horiek halere munduko hizkuntzen % 0,2 besterik ez dira. Beraz, hizkuntzen artean ohikoena ez da milioika hiztun izatea, baizik eta ehunka mila, edo ia milioi bat, euskarak bezala. Hizkuntza handi-handiak eta txikiak ditugu, baina guztiak dira beharrezkoak.

Hizkuntza bat baino ƎŜƚƙI·Ǝƻ mintzatzen den inguruetan ōƛÎƛŭÎŜI· ƻăƻ egoera arrunta da.

Hala bada, gurea bezalako gizarte elebidunak ohikoak dira. Gure egoera soziolinguistikoan halere, euskara eta gaztelania zein egoera desberdinetan dauden aintzat hartu behar dugu. Azken hamarkadetan euskararen gizarte egoerak nabarmen hobera egin badu ere, oraindik maila ahulagoan dago gaztelaniaren aldean eta ume guztiek ez dute etxean euskara ikasteko aukera.

Sin embargo, sabemos que no todas las lenguas del mundo tienen ese número de hablantes. Una docena de idiomas cuenta con más de cien millones de hablantes, pero esas sólo son el 0,2 % de las lenguas del mundo. Por ello, entre las lenguas lo normal no es tener muchos millones de hablantes sino unos cientos de miles o cerca del millón, como el euskera. Hay lenguas grandes y pequeñas, pero todas son necesarias.

En el mundo es muy habitual vivir en lugares donde la gente utiliza más de una lengua en su vida cotidiana.

Situaciones plurilingües como la nuestra son muy normales. Pero lo que hay que tener en cuenta es la diferente situación en la que se encuentran el euskera y el castellano. Pese a que el euskera está en proceso de recuperación, todavía es la lengua socialmente débil y solo algunos niños y niñas tienen la oportunidad de aprenderlo en el hogar.

Haurrak euskaraz aditzeko eta aritzeko aukerak, zuen esku

Zuen esku dago, neurri handi batean, zuen haurra txikitatik euskalduna izango den edo ez, eta horretan ez zaudete bakarrik.

Las oportunidades de que oigan y hablen euskera, en vuestras manos

La familia que desee que vuestros hijos e hijas tengan desde pequeñ@s una relación cercana con el euskera tenéis diversas opciones.

Gurasoek euskara jakin zein ez, baduzue haurra txikitatik elebiduna izango dela ziurtatzeko modurik.

Udalak laguntza berezia ematen die familiei:

- Haurra jaiotzen denetik hainbat informazio eta baliabide ipintzen ditu gurasoen esku.
- Euskarazko produktuen berri ematen zaizue eta liburutegian hainbat material maileguan hartzeko aukera izango duzue
- Aisialdi eta kultur eskaintza zabala dago euskaraz umeei zuzenduta.
- Euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzako diru-laguntzak daude.
- “Haurreskolek” eta ikastetxeek euskarazko irakaskuntza eskaintzen dute.

Aunque la madre o el padre, o ambos, no sepáis euskera, perfectamente podéis plantearos que vuestros hijos e hijas sean bilingües desde pequeñ@s y en este proyecto las familias no estáis solas. Disponéis e diferentes medios y apoyos para asegurar que los niños y niñas se integren desde muy pronto en el uso del

El Ayuntamiento ofrece ayuda y asesoramiento especial a las familias:

- Desde el nacimiento pone en manos de las madres y padres diversa información y recursos.
- Se os informará de los productos en euskera y tendréis la opción del servicio de préstamos de la biblioteca.
- Existen numerosas de actividades de ocio y cultura para la infancia en euskera.
- Tendréis ayudas económicas si queréis aprender euskera
- Las “haurreskolas” y los centros escolares ofertan la enseñanza en euskera.

Ideia: Erandioko Euskara Zerbitzua
Edukiak: Paula Kasares
Laguntzailea: Iñaki Eizmendi
Argitaratzailea: Erandioko Udala

Ekoizpena: *Adiune Proiektuen Fabrika*
Ekoizpen eragilea: Alberto de Abajo
Maketazioa eta errealizazioa: Aritz Albaizar
Harreman komertzialak: Jose Aspuru

Ilustrazioak: Eider Eibar - Dirudi

Aktoreak:
Ama: Sonia Villamor
Aita: Jon Zubiaga "Osoron"
Argi: Euri Garaizabal eta Maddi Aspuru
Ane: Maddi de Abajo

Gidoia: Idoia Torregarai
Soinu banda: Xabier Zabala
Off-eko ahotsak:
Ander Garaizabal eta Sonia Villamor
Inprimaketa: Printhouse

Lege gordailua: BI-839-2014

euskara euskara
euskara euskara euskara